

Funtsezko baliabideak:

Gure enpresa aurrera ateratzeko, hainbat baliabide behar ditugu:

Baliabide fisikoak: Lehen fasea betetzeko, lehiaketa egiteko pabelioi handi bat beharko genuke, eta agian ordenagailu batzuk. Hortik aurrera, taldea sortutakoan, ordenagailuak, ekipamendua, entrenatzeko gune bat, taldea kudeatzeko ofizina bat eta garraiorako baliabideak beharko genituzke.

Baliabide intelektualak: Taldea aurrera eramateko, hainbat abilitate dituzten pertsonak ezinbestekoak dira. Baliabide nagusia bideo-jokoetan ibiltzeko habilezia izango litzateke. Horrez gain, enpresan lan egiten duten baina taldean ez dauden beste pertsonen laguntza behar dugu. Hauek, besteak beste, koordinatzeko habilezia, sare sozialak erabiltzeko habilezia edo marketin kontuetan aditua.

Giza baliabideak: Enpresaren partaide direnek, batez ere baliabide intelektualak behar dituzte, baina giza baliabideak ere beharrezkoa izan genezake, adibidez, ordenagailuak eta ekipamendua lekualdatzeko...

Finantza baliabideak: Taldea aurrera ateratzeko, dirua ezinbestekoa suertatuko zaigu, hori lortzeko hainbat bide erabiliko ditugu: publizitatea, patrozinadoreak, lehiaketarako sarrerak...